



BARANDIARAN

*Sei aurpegiko, sei koloreko. Seiak
nahastuz, seiak txandatur. Hala da
giza ulerkuntzen kubo magikoa;
sei hegaleko aingeruaren kosmobisioa.*

*Okrea ezilkor. Megalitoa iraunkor.
Mitoa adierazpide. Liburua berri on.
Katedralea gizarte. Hiria etorkizun.*

*Antzinako gestuak datoz kontzientziaren
azalera: orain bat, gero bestea.
Bildumenaren bizgarritasuna; zuhaitzen babesa;
kronlexaren kontsumazioa; teilaren jabegoa;
eguzkiaren bidaia; habearen halabeharra...*

*Kultur ikuspegia hezur-mamitzerakoan,
gauza urria zen aztarnategiek ziotena:
harpe, hilobi, margo, egitura.
Aberatsago zitekeen ele zaharren usmoa,
erlatoetan antzirudituz zer den mundua.*

*Gurpildu zuen, azkenik, funtsaren funtsa:
"Berez inor ez da ezer. Beste baten
esku dago orobiraren izaera".*

*Arkeogaiak mitoen bidez oldozterakoan,
itinerarium mentis bateko zantzuak ziren,
—lekuko estimagarri—mimodramak eta ikonoak.*

Olartzun, 1990-11-22.

(*MIMODRAMAK ETA IKONOAK" poema-liburutik)

Juan Mari Lekuona